

# Abentura-parkeak

**Garai bateko atrakzio-parkeen aldaera bat dira, eta urte gutxian erruz ugalduta gure artean.**

Gai horren inguruan ariketa hauek egin ditzakezu:

- Elkarrizketa bat ikusi eta galderei erantzun.
- Erreportajea irakurri eta testu-zatiak ordenatu.
- Taldean jarri eta gaiari buruz hitz egin.



## Ikusi bideoa



Ikusi Irrisarri Land abentura-parkeko gerenteari egindako elkarrizketa, eta esan parkean zer atrakzio aurkituko dugun.

|                            | Badago | Ez dago |
|----------------------------|--------|---------|
| Ohe elastikoa              |        |         |
| Tirolinak                  |        |         |
| Jolastokia                 |        |         |
| Txirringak                 |        |         |
| Igerilekuak                |        |         |
| Kulunka                    |        |         |
| Lehoiak                    |        |         |
| Munduko kulturen ibilbidea |        |         |
| Pendulua                   |        |         |
| Mitologia ibilbidea        |        |         |
| Zirkua                     |        |         |
| Zaldiak                    |        |         |
| Izurdeen ikuskizuna        |        |         |
| Ikatzaren museoa           |        |         |



## Irakurri testua

**Irakurri erreportajea osorik eta jarri artikuluan agertzen diren ordenan beheko zatiak.**

Soken ibilbideak, tirolinak, penduloa, bizikletaz ibiltzeko pistak, eskalada... Hainbat ekintza egin ahal ditugu abentura-parke batean. Helburuak ondo pasatzea eta zirrara sentitzea izango dira, abenturaz betetako egun bat igarotzea.

Euskal Herrian hainbat daude: Sendaviva, Baztan Abentura, Artamendia, Hontza Extrem, Irrisarri Land, Txindokiko Itzala, Beigorri... Modan dagoen kontzeptu bat da eta urtean milaka bisitari izaten dituzte.



“Abentura gauza berriak egiteko grina da, eta gure asmoa da basoa erabiltzaileari gerturatzea”, kontatu digu Joxe Elgorriagak (Lesaka, 1981). Bera Igantzin (Nafarroan, Bortzirietan) dagoen Irrisarri Land abentura-parkeko gerentea da, eta bertako lursail berdeetan dagoen parkeko jolastoki erraldoi batean elkartu gara. “Irrisarri Land parkean hainbat jarduera antolatu ditugu: batetik, arriskutsuak, adibidez, tirolinak; eta, bestetik, kultura eta historia lantzeko jarduerak”, azaldu digu.

### IRRISARRI LAND

75 hektareako lursail handi batean dago abentura parkea, eta, bertan, basoa da nagusi. Jarduerarik ezagunena tirolina da: “3.000 metro-kable ditu, zortzi tirolinatan bananduta. Luzeena 900 metrokoa da eta txikiena 250ekoa”. Baina hori ez da jendea erakartzeko jarduera bakarra: bizikleta-parkea, zaldiak, sigway-ak, interpretazio-ibilbidea, zentzumenen ibilbidea, mitologia-ibilbidea, zuhaitzen gaineko abentura-ibilbidea, ikatzaren museoa, 1.000 metro koadroko jolastokia...

Horien guztien artean, Irrisarrik zer berezitasun duen galdetu diogu gerenteari. “Tirolinen ibilbidea da jendea erakartzeko arrazoi nagusia. Europa-mailan ere zaila da horrelako ezaugarriak dituen bat topatzea”, kontatu digu. Horrez gain, Irrisarri turismo-gune bat da, eta hori ez da oso arrunta: “Hiru eratako alojamendua dauka, bi jatetxe, jarduerak egiteko aukera... Euskal Herrian behintzat ez dut horrelako beste abentura-parkerik ezagutzen, azpiegitura batean denetarik daukagu eta”.

### MUNDU ZABALEKO BISITARIAK

Amaitu berria den 2016. urtean, Irrisarri Landek 50.000-60.000 bisitari inguru izan ditu. Urtarrilean eta otsailean soilik ixten dute, eta, urtean zehar gertuko jendea etortzen bada ere, oso urrutitik ere etortzen zaizkie: “Urtean zehar Euskal Herri osotik etortzen zaizkigu bisitariak, baita Kataluniatik, Madrildik, Andaluziatik, Valentziatik ere. Baina udan, aukera asko zabaltzen zaigu, Europa, Estatu Batuak, Kanada, Hego Amerika, Korea, Txina, Japonia, Sudafrika, Errusia, Saudi Arabia... Hainbat herrialdeetako jendea bertaratu baita”.



Bordak, hotela edo aterpetxea, hiru aukera eskaintzen ditu turismo-gune honek.

Batez ere, familiak izaten dira, baina, alojamenduaren arabera, profila aldatu egiten da: “Aterpetxera lagun-kuadrillak edo ikastetxeetako ikasleak etortzen dira, eta hotelak edo bordak bikoteek eta familieek aukeratzen dituzte”, esan digu Elgorriagak. Astean zehar, enprekin ere lan egiten dute, eta, beraz, merkatu zabala biltzen dute.

## JARDUEREN ARRISKUA

Abentura parkeetako zenbait ekintzak arriskua dute, penduluak edo tirolinak, esaterako. Horrela, ezer larria ez gertatzeko neurriak hartu behar dira. “Europa mailako legearen arabera sortu eta diseinatu genuen parkea. Guk 2014. urtean ireki genituen ateak, eta, orduetik, urte-hasieran gure instalazioen kalitatea baloratu egiten digute. Bestalde, hemen segurtasuna asko lantzen dugu”.

Begiraleek prestakuntza jasotzen dute, eta euren lanean kontzentrazio-maila handia behar dute. Gainera, bisitariei behar dutena uzten diete: kaskoak, sokak, ekipamendua... “Ez dugu istripu larririk izan, baina, badaezpada, erizaintza-zerbitzua ere badaukagu”.



Tirolina da jarduerarik ezagunena.

Urtetik urtera berrikuntzak egiten dituzte: 2016. urtean eraikin berri bat egin dute, otordu handiak, ezkontzak, bilerak, produktuen aurkezpenak... egiteko erabilera anitzeko gela bat, hain zuzen ere. “Iaz bost ezkontza egin genituen, eta jada beste hamar ospatzeko erreserba egin dute. Ondoren, gure azpiegiturak indartu nahi ditugu. Finka handia da, eta ezagutzen joan ahala, aukera berriak sortzen dira”.

Eta zuk, zer berrikuntza egingo zenuke? Zuretzat zer da abentura-parke bat? Noizbait tirolina edo pendulua bezalako jarduera batean ibili zara? Zer iruditzen zaizkizu horrelako ekintzak?

Bera Igantzin (Nafarroan, Bortzirin) dagoen Irrisarri Land abentura parkeko gerentea da, eta bertako lursail berdeetan dagoen parkeko jolastoki erraldoi batean elkartu gara.

Horrela, ezer larria ez gertatzeko neurriak hartu behar dira.

Modan dagoen kontzeptu bat da eta urtean milaka bisitari izaten dituzte.

Helburuak ondo pasatzea eta zirrara sentitzea izango dira, abenturaz betetako egun bat igarotzea.

Modan dagoen kontzeptu bat da eta urtean milaka bisitari izaten dituzte.

Euskal Herrian behintzat ez dut horrelako beste abentura-parkerik ezagutzen, azpiegitura batean denetarik daukagu eta”.

Urtetik urtera berrikuntzak egiten dituzte: 2016. urtean eraikin berri bat egin dute, otordu handiak, ezkontzak, bilerak, produktuen aurkezpenak... egiteko erabilera anitzeko gela bat, hain zuzen ere.

Amaitu berria den 2016. urtean, Irrisarri Landek 50.000-60.000 bisitari inguru izan ditu.

“3.000 metro-kable ditu, zortzi tirolinatan bananduta.

Luzeena 900 metrokoa da eta txikiena 250ekoa”.Horien guztien artean, Irrisarrik zein berezitasun duen galdetu diogu gerenteari.

Baina udan, aukera asko zabaltzen zaigu, Europa, Estatu Batuak, Kanada, Hego Amerika, Korea, Txina, Japonia, Sudafrika, Errusia, Saudi Arabia... Hainbat herrialdeetako jendea bertaratu baita”.

## Eta zuk?

Jarri talde txikian eta komentatu:

- Izan zarete inoiz horrelako parke batean?
- Nolako esperientzia izan da?
- Zein izan da probatu duzuen atrakziorik onena?
- Zer desberdintasun dago parke tematikoekin alderatua?

